


NAFARROA *ren* EGUNA

BAIGORRI
APIRILAREN 28 AN



2013ko KULTURALDIA

Primaderako haize epelarekin batean, Baigorriko Kulturaldia garai hurbiltzen zauku.

2012. urtea bere sorpresa zama haundiarekin iragan da.

Alde batetik, Frantzian, hauteskunde garaia zela eta, hainbat ele eder hurbildu zauzkigu belarrietara : lurralde kolektibitate berri baten proiektuaren gibelean, aspaldiko desadostasunak baztertuz, alderdi guziak zentzu berean elkartzen zirela, etsai beraren aurka. Gure hizkuntza eta kultura hainbeste urtez zapaldu eta debekatu ondotik, buru belarri defenditzen eta sustatzen hasi dira beste batzuk.

Orain arte minoritate ttipi baten ametsa zena, herritar guzien aldarrikapena bilaktzen ari da.

Hala ere, alde batetik indarrak elkartuz garaipen ttipi batzuk agertu badira ere, Izpegiren bestaldetik haize hotz batek indar guziak hormatzen segitzen du. Nafarroan, krisiaren aitzakiaren gibelean gordetuz, gure nortasuna berriz ere zangopilatzen jarraitzen dute, kultura, hezkuntza eta komunikabide eragileei hegala moztuz.

Gaur egun ere, beste garaietan baino gehiago, elkartzeko garaia da. Indarrak, ideiak, jendeak, belaunaldiak, herrialdeak elkartuz, garaipen horiek azkartzeko, lortutakoak atxikitzeke, urrunago joaiteko ELKARTU !

Lema horrekin, aurtengo Kulturaldiak programazio aberats eta zabal baten bidez, elkartasunaren haizea ufatzea proposatzen du.

PRESOEN GAUALDIA – Apirilaren 12an

2013 urteko kulturaldi honen hasteko, lehen ekitaldia Presoen Gaualdia izanen da, Apirilaren 12an ostiralez, Baigorriko Bixentainean.

Gaualdia presoen aldeko elkarretaratze batekin abiatuko da Baigorriko plazan.

Ondotik zintzur bustitze alaitu batekin jarraituko dugu Txarangaga txarangarekin, Donostiako Skakeitan (Reggae / Rock / Ska) taldeari lekua egin aintzin.

Gaualdi hori Herrera mugimenduaren alde egiten da aurten ere.



GAZTEEN ATERALDIA – Apirilaren 13 eta 14ean

Aurten gaztetxoentzat asteburu bateko ateraldia proposatzen dugu Xiberoan, Gotaine-Irabarneko jauregian.

Belaunaldi guziek beren lekua ukan dezaten Kulturaldi honetan, eta Euskal Herriko xokoak eta elkar ezagutzeko parada ezinhobea izanen da asteburu hori.

Ateraldi hori 8-13 urteko gazteentzat pentsatua eta lekuak mugatuak direnez izena eman ondoko zenbakira : 06.72.17.36.27.

Asteburua 20 € haur bakotx.



Andoni Egaña eta Xabier Lizasoren « Bi arreba » ikuskizuna
Apirilaren 14ean

« Chopinzalea da Xabier Lizaso piano-jolea. Xenpelar du gustoko Andoni Egaña bertsolariak. Chopinek eta Xenpelarrek badute elkarrekiko antzekotasunik.

Garai beretsuan bizi izan ziren. Biak ziren, bakoitza bere arloan, artista handiak. Biak izan ziren berritzaile. Biak ziren katolikoak. Biak ziren Estadurik gabeko nazioetakoak. Biek bizi izan zituzten garai politiko gatazkatsuak. Biak hil ziren gazterik, biak gaisotasunez ondorioz, bata 34 urterekin eta bestea 39rekin. Eta heriotza orduan, biek izan zuten ondoan...arreba.

Chopin eta Xenpelarrek ez zuten elkar ezagutu. Xabier Lizasok eta Andoni Egañak bai. Horregatik, bi mundu, bi obra, bi kultur-modu eta bi arreba ezagutu eta ezagutzera emateko ahalegina egin dute »



Emanaldia Ortzaizen kokatua den Goikoetxea lur untzi lantegian iraganen da.

“Lurraldeen elkartzea, aintzinamendua ala lanjerra ?“ eztabaida gualdia –
Apirilaren 19an – Azkarateko gelan

Aurten gogoetari uzten diogu lekua **eztabaida publiko** baten bidez.

"Lurraldeen elkartzea, aintzinamendu ala lanjerra?" problematika hartuz, hemengo jendeek gai horri buruz dituzten galderak eta xehetasunak galdetzen ahalko dituzte hainbat hautetsi eta eragileei.

Eztabaida huntan, 3 ardatz aztertuko ditugu:

- Euskal lurralde kolektiboa

- Kantonamendu berriak

- **Herri elkargoen batzea**

(Baigorri-Garazi/Iholdi-Oztibarre/Amikuze)

Gualdia, Lasako gelan iraganen da apirilaren 19an ostiral arratsez, 8etan. Ondotik ostatua segurtatua izanen da buruen freskatzeko !

Domingo Ibarburu” antzerkia Armendaritzeko Elgarrekin taldeak emanik –
Apirilaren 21ean

Haspaldi huntan ari dira Armendaritzeko gazteak, belaunaldiz belaunaldi euskarazko antzerkien lantzen eta aurkezten, uda batetik bestera umorezko obren plazaratzen. Aurten Baigorriarant hurbiltzen zaizkigu Pantzo Hirigaraiei “Domingo Ibarburu” antzezlanaren lehen emanaldia aurkezterat, Ipar Ameriketara joan aintzin beren antzerkia emaiterat. Ikusgarria Baigorriko Biletzeko zinegelan egingen da arratsaldeko 5etan eta ondotik jateko eta edateko frango izanen da.

MUSIKALDIA – Apirilaren 27an

Aintzineko urteetan bezala, Nafarroaren egun bezperan, aurten Apirilaren 27an, arratseko 9etan, Baigorriko elizan iraganen da Musikaldia.

Aurtengo gomitak Bretañatik heldu zaukun **Startijenn** folk taldea eta Euskal Herriko **Saioa** taldea ditugu.



NAFARROAREN EGUNA – Apirilaren 28an

Kulturaldi honen bururatzeko, urte guziz ezin hutsegina bilakatu den hitzordua dugu Nafarroaren Eguna. Horra aurtengo egitaraua :

8etan : Askaria

Baigorriko ikastolak eskainirik

11etan : Kabalkada

Desfilea + plazan ikusgarri :

txalaparta – bertsulariak

Amikuze eta Anhauzeko joaldunak

Baigorri - Amikuze eta Txantreako ziganteak

Gaiteroak + trikitilariak

Beasain eta Iruñeako dantzariak

Karmeleren irrintzina eta Basaizearen hitza

Pentzean 14etan : Ikastolen bazkari alaitua

Arratsaldean Herriko plazan

15h-17h: Kirol animazioa

17h-18h30: Dantza eta kantu ikusgarria : Urretxuko dantzariak besteak beste...

Ondotik kontzertuak :

Bidrio eta Otsoak, Trikidantz, Breñañako Startijenn taldea, Tinbakada, Kiki Bordatxo, Joxe Replay...

Egun osoan:

Uztaritzeko txaranga, Bertsu txaranga, Ezpela, Kuxkuxtu, Euski eta Muttiko Alaiak...